BIZKAIKO NEKAZARITZAREN AZKEN URTEETAKO EBOLUZIOARI BURUZKO ADIERAZLE BATZUK

Ekonomiaren arlo guztietan gertatzen den bezala, nekazaritzari buruzko edozein azterketatan interes handiagoko gauza da bilakaerak edo eboluzioak ikustea momentu jakin batzuetako irudi estatikoak ematea baino. Hori oso gauza argia izanik ere, ez dira asko izaten denboraldi luzetxoak hartzen dituzten azterlanak eta balorazioak. Ohiko komunikabideetan oihartzuna dutenetan, behintzat, urte batetik besterako aldaketak izaten dira gehientsuenetan baloratzen diren bakarrak. Nik –ahal dudan heinean- hamar urte inguruko aldia hartu dut, aski luze delakoan batetik, eta baita beste arrazoi batengatik ere: duela justu hamar urte onartu zelako Europako Nekazaritza Politika Bateratuaren lehendabiziko erreforma, oraintsu arte indarrean egon dena; interesgarria izan daiteke erreformak sektorean eduki duen eragina neurtzen saiatzea, ordutik hona gertatutakoari begira paratuz.

Artikulu honen helburua mugatua da: Bizkaiko nekazaritzak azken urteetan izan duen eboluzioa baloratzeko elementu edo osagai batzuk ekartzea, besterik ez. Hona hemen horretarako zer egingo dudan: Sektorearen baitako alderdi eta aldagai batzuk hautatu (inongo exhaustibotasunik ez, beraz), bakoitzari buruzko adierazle ekonomiko edo bestelakoren bat aukeratu, eta adierazle horien eboluzioaren zifra batzuk

eman, betiere iturriak aipatuz. Jakina, neure baloraziotxo bat ere ekarriko dut azken atalean.

1. Enpleguaren galera

Lan faktoreari dagokionez, enplegu mailaren eboluzioa izan daiteke aztergai interesgarrienetarikoa. Hori ikusteko hartu dugun lehenengo indikadorea Espainiako INE edo Estatistikako Instituto Nazionalaren Populazio Aktiboaren Inkesta (PAI) izan da. Metodologi arazoak direla-eta (definizio batzuk aldatu direlako) problematikoa da erkatzea 2002ko datuak aurreko urtekoekin. Beraz, 1991tik 2001era bitarteko aldia izango da hartuko duguna. Esandako indikadorearen arabera zera ondorioztatzen da: Bizkaiko nekazari aktiboen kopurua 1991an 11.090koa zen; 2001ean berriz, 5.280koa. Horrek esan nahi du nekazaritzaren populazioa aktiboaren galera %52,39koa izan dela hamar urte horietan, hots, enpleguaren erdia baino gehiago galdu dela.

Nekazal enpleguaren beste adierazle posible bat Segurantza Sozialeko Nekazaritzako Errejimen Bereziaren afiliazio kopurua izan daiteke. Errejimen horretan norbere kontuko nekazari lez (ustiategi-titular lez) 3.828 lagun zeuden afiliaturik 1992ko abenduan Bizkaian; 2002ko abenduan, aldiz, kopuru hura 2.161ra jaitsi da. Beraz %43,29koa izan da galera. Txarrena da galtzeko joera etengabe doala aurrera, datuen eboluzioa ikusita.

2. Lur faktorea

Gainerako bi produkzio faktoreen (lanaren eta kapitalaren) gainetik, berebiziko garrantzia dauka – edo eduki beharko luke- lur faktoreak nekazaritzan. Lurraren galera aztertu nahi dut bereziki; ez da erreza, ordea, azken hamar urteetako zifra argiak aurkitzea. Datu exhaustibo bakarrak Nekazal Zentsuetan aurki daitezke, baina azken bi Nekazal Zentsuak 1989 eta 1999an eginda daude. Batetik bestera hamar urteko aldia bai,

beraz, baina ez azken hamar urteetakoa. Besterik ezean, ikus ditzagun, hala ere, datu horiek: erroldatutako nekazaritza lur osoaren kopurua 178.596 hektareakoa zen 1989an, eta 171.712koa 1999an (kopuru horietan lur zuhaitzeztatuak, sasidiak eta abar ere konputatzen dira; oroi dezagun Bizkaiak 218.000 hektarea inguru dituela guztiz). Horrenbestez, galera 6.884 hektareakoa izan da (portzentaietan %4ra ez da iristen). Baina, esate baterako, galdutako azalera osoari begiratu barik, galdutako lur landuei begiratzen badiegu, portzentaia hura oso gora joaten da, %38,86raino hain zuzen ere, lur landuen kopurua 5.250 hektareatik 2.040 hektareara (-3.210 Ha) pasatu delako 1989-1999 aldian.

Lurra "galdu" zer esan nahi duen? Argi dago modu bakar bi daudela nekazaritza lurra "galtzeko": bietatik bat; ala batere erabilerarik gabe utzi da lehenago nekazari lurra izan den hori, ala beste erabilera bat eman zaio.

Azken kasu hori da, batez ere, kezkagarria dena. Eta azken kasu horren barruan lurraren kalifikazio urbanistikoaren aldaketari eman ahal diogu aparteko inportantzia, zeren gertatzen den galera modu hau, praktikan ia erabatekoa eta buelta ezinezkoa izango baita. Kontua da oso erritmo bizkorrean ari dela gero eta lur industrial eta erresidentzial gehiago sortzen eta sortzen. Dakigula, egundo ere ez da horri buruzko daturik ematen, baina datuak egon badaude. 1993koak ditugu aurreneko zifrak. Eusko Jaurlaritzako Hirigintza Sailaren urte horri dagokion Lurralde Datutegiaren arabera, Bizkaian Hiri Lurzoru eta Lurzoru Urbanizagarriaren guztizko kopurua 9.777 hektareakoa zen orduan. Zortzi urte beranduago (ez dago geroagoko daturik), 2001eko azaroan, zifra hura 13.109,93 hektareara igo da, Bizkaiko Foru Aldundiaren Hirigintza Sailak egindako lurzoru kalifikatuaren azken inbentariotik ondorioztatzen denez. Beraz, zortzi urtetan Bizkaiko lurzoru erresidentzial eta industriala % 34 igo da, beste 3.332,93 hektarea kalifikatu direlarik (konparazio baterako, Berrizko udalerri osoaren azalera baino

gehiago). Pentsatu beharko da denboraldi horretan eduki ditugun populazioaren hazkundeak eta hazkunde ekonomikoak justifikatu ahal duten halako jokabidea. Datuak hortxe daude, nolanahi ere.

Lurraren atala ixteko beste kontu bat aipatu nahi dut, nekazarientzako lurraren eskuragarritasunari dagokiona, hain zuzen ere. Gurean, merkatua da lurra eskuratzeko modu bakarra, teorian beste modu batzuk ere egon litezkeen arren. Arazoa da merkatuak ez duela lurrik eskaintzen, zorua baino. Baieztapen hori ulertzeko ezberdindu behar dira lurra (nekazal produkzioaren oinarrizko faktorea) eta zorua (edozein giza jardueratarako balizko –ez derrigorrez "de facto" deritzaneko- euskarria. Esan bezala, merkatuak zoru hutsa eskaintzen du, ez lurra. Horrek esan nahi du merkatuak ezarritako prezioak ezin direla amortizatu nekazaritzaren ihardunetik. Lur merkaturik ia-ia ez dago Bizkaian, eta horretatik egon den apurtxo-apurtxoa suntsitzen ari da, itxura guztien arabera. Horra adierazle bat: nekazal erabilerarako egiten diren lur salerosketen nolabaiteko kontrol ofizial bat badago, Lurraren Prezioei buruzko Inkestan zehazten dena (Nekanet, Euskadiko Landa eremuen inguruko informazio zerbitzuan kontsultatu ahal da). Inkesta horren datuen arabera, Bizkaian, 1990an lurraren bataz besteko prezioa hektareako 775.740 pezetatan zegoen. Azken datuak 2001 urteari dagozkio eta 4.219.749 pezetatan uzten dute hektarearen bataz besteko prezioa. Azken zifra hau deflaktatuz gero, 1990ko pezetatan jarrita, zera daukagu, lurraren prezioa % 258 igo dela hamaika urtetan. Beste modu batera esanda: merkatura ateratzen den lur apurra orain hamaika urte baino hiru bider ta erdi karuago da, betiere termino errealetan (pezeta iraunkorretan).

3. Azken produkzioaren kopurua

Esan daiteke Bizkaian nekazal produktu ia guztietan (txakolina da, segurki, salbuespen bakarra) gutxiago ekoizten

dugula gaur egun orain hamar urte baino. Kontrakoa ematen da aditzera sarritan, baina oinarri enpiriko estatistikoak ez du eztabaidarako leku handirik uzten. Hartu ditugun iturriak honako hauek dira: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailak argitaraturiko Nekazal Elikagai Sektorearen Estatistika Urtekariak, eta, gorago aipaturiko "Nekanet" informazio zerbitzuaren estatistikak.

1992tik 2002ra bitarteko serie estatistiko osoak iturri horietan ikus daitezke. Serie haien arabera, egiaztatu ahal da produkzio kopuruaren beheranzko joera egonkor eta etengabea izan dela ia produktu guztietan (salbuespen gutxi-gutxi dago ezaugarri horretatik at). Horra hor zifra batzuk, hartu dugun aldiaren bi muturrei dagozkienak: 1992tik 2002ra bitartean artoaren Bizkaiko produkzioa 1.000 tonatik 546 tonara (% -45,50) pasatu da; patatarena 9.105 tonatik 5.990 tonara (% -34,22); zuhainetarako laboreena 65.100 tonatik 19.510 tonara (% -70,04); barazkiena 28.870 tonatik 17.652 tonara (% -38,86); txakolinerako mahatsa 270 tonatik 850 tonara (% + 214,81).

Abeltzaintzari dagokionez, honako datu hauek ditugu: 1992tik 2002ra bitartean, behi-esnearen Bizkaiko produkzio osoa 135.779.000 litrotik 99.148.000 litrora (% - 26,98) pasatu da; ardi-esnearena 2.458.813 litrotik 2.144.500 litrora (% -12,79).

Okelari buruzko datu zuzenik ez dagoen arren, nahiko erreza da adierazle fidagarri bat lortzea, baditugulako Euskadiko Erkidego Autonomoan hiltzen den ganaduaren kopuruari buruzko datuak, bai eta ganadu horren jatorriarena ere. Kontuan hartuta Bizkaian jatorria duen ganadu ia-ia guztia Erkidego Autonomoan bertan hiltzen dela, esan ahal dugu zifra hori izango dela, oso gutxi gora behera, okelaren Bizkaiko produkzioa. Gauzak horrela honako hau dugu: 1992tik 2002ra bitartean Bizkaiko jatorrikoak ziren EAEan hildako betabereen buru kopurua 23.879tik 21.086ra (% -11,70) pasatu da; arta-

bereen buru kopurua 17.960tik 12.513ra (% - 30,33); txerrien buru kopurua 7.759tik 1.997ra (% -74,27).

4. Nekazarientzako prezioak

Nekazariei ordaintzen zaizkien prezioek ere behera egin dute. Hau aztertzeko, aurreko atalean aipatu ditugun iturri berak erabiliko ditut (Estatistika Urtekariak eta Nekanet), baina 2002 urteari dagozkion datu guztiak ez daudenez, 1991-2001 aldia beharko dugu hartu erreferentzia gisa. Bestetik, estatistika horietan agertzen diren prezioak ez dagozkio Bizkaiari bakarrik, Erkidego Autonomo osoari baino; hala ere, baliozko erreferentziak direlakoan nago. Beste ohartxo bat: prezioak balore monetarioak direnez, erosteahalmena edo pezetaren deflakzioa kontuan hartu beharko da. Erabiliko dudan deflaktorea Kontsumorako Prezioen Indizea izango da. Espainiako Estatistikako Instituto Ofizialaren arabera, 1991eko abendutik 2001eko abendura bitartean, Euskadiko Autonomi Erkidegoan prezioak 44,5% igo ziren. Beharrezko diren kalkuluak eginez gero edukiko ditugu 2001eko zifrak 1991ko pezetatan ezarriak.

Ikus ditzagun ,bada, zeintzuk ziren produktu batzuen 1991ko bataz besteko prezioak eta zeintzuk 2001ekoak (1991ko pezetatan emanak): zerba kiloaren bataz besteko prezioa 1991ean 101,58 pezetakoa zen, 2001ean ,berriz, 73,12 pezetakoa (% -28,02); leka kiloaren prezioa 314 pezetakoa zen 1991ean, eta 267,21 pezetakoa 2001ean (% -14,91); letxugarena 145.83 pezetakoa 1991ean eta 71,91 pezetakoa 2001ean (% -50,69); porruarena 285,08 pezetakoa 1991ean eta 176 pezetakoa 2001ean (% -38,27); piper berdearena 506 pezetakoa 1991ean eta 366,78 pezetakoa 2001ean (% -27,52); tomatearena 143 pezetakoa 1991 eta 178,54 pezetakoa 2001ean (% + 24,85); Txahal kiloarena 590,58 pezetakoa 1991ean eta 220,76 pezetakoa 2001ean (% -62,62); urtebeteko betaberearena 563,16 pezetakoa 1991ean eta 190,31 pezetakoa 2001ean (% -

66,21); behi esnearen litroarena 38,01 pezetakoa 1991ean eta 35,97 pezetakoa 2001ean (% -5,37).

5. "Nekazaritza errenta" deiturikoa

"Nekazaritza errenta" indikadore makroekonomiko bat da. Askotan aipatua izaten da, baina gutxitan esplikatzen da zer den edo zer adierazten duen.

Nekazaritzak, sektore ekonomiko lez, sortzen dituen ondasun eta zerbitzu guztien merkatu balioari "Nekazal Ekoizpen Osoa" deitzen zaio. Ekoizpen Oso horri kentzen bazaio nekazaritza sektorean bertan berrerabiltzen diren ondasun eta zerbitzuen balioa, "Nekazal Azken Ekoizpena" dugu. Azken honi kendu behar zaizkio sektoretik kanpoko gastuak, eta orduan Balio Erantsi Gordina (merkatu prezioetan) dugu. Aurrekoari subentzioen balioa gehituta Balio Erantsi Gordina dugu oraindik, baina oraingo honetan "faktore kostuetan". Operazio bakar bat falta dugu: amortizazioen balioaren kenketa. Hori eginik, azken emaitza honako hau da: Balio Erantsi Netoa faktore kostuetan, edo "Nekazaritza Errenta" deiturikoa. Horrela deitzen zaio, zeren produkzio faktore guztien (lurra, kapitala, lana) ordainketa neurtzen baitu. Nekazaritzak sortutako balio guztia adierazten du.

Zein izan da Nekazaritza Errentaren azken urteetako eboluzioa Bizkaian? Hasteko esan dezadan 2001eko eta 2002ko behin betiko daturik ez dagoela oraindik. Azken bi urteei buruz dauden datu bakarrak behin-behinekoak dira eta esperientziak diost aldaketak handitxoak izaten direla maiz behin-behinekotik behin betikora igarotzean. Hargatik nahiago dut 1990-2000 aldia hartzea.

Iturriak, berriro ere, Nekazal Elikagai Sektorearen Estatistika Urtekariak eta Nekanet izango ditugu. Horien arabera, argi ikusten da Nekazaritza Errentaren eboluzioaren joera hamar urte horietan beheranzkoa izan dela, gora behera batzuk tarte-

an egonik ere. Hautaturiko aldiaren muturretako datuetara noa orain: Bizkaiko Nekazaritza Errenta 19.125,7 miloi pezetakoa izan zen 1990ean, eta 2000 urteko balioa 17.251,6 miloi pezetatan ezarri zen. Honek esan nahi du beherakada dagoela, egunerik-eguneko prezioetan ere. Baina balore monetarioa neurtzen ari garenez, prezio konstanteak behar ditugu. Lehenago bezala Kontsumorako Prezioen Indizearen deflaktorea erabiliko dut: Espainiako Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera 1990ko abendutik 2000ko abendura bitarteko prezioen igoera % 46,7koa izan zen Euskadiko Erkidegoan. Beraz, 2000ko zifra (17.251,6 miloi) 1990ko pezeta iraunkorretan 11.759,78 bihurtzen da. Hortik ondorioztatzen da hamar urte horietan Nekazaritza Errentaren aldaketa erreala (pezeta iraunkor edo kostanteetan) % -38,52koa izan dela; jaitsiera galanta, beraz.

6. Azkena: Baikortasunerako lekurik bai?

Hasieran idazti dut lantxo hau ez dela azterketa exhaustibo bat. Gainera, esan behar dut hautaturiko alderdi eta aldagai konkretuak ez direla nolanahi hautatu. Ez ditut aukeratu, esate baterako "produktibitatea" bezalako aldagaiak, ez zaizkidalako asko interesatzen. Adibidez, egia da Bizkaian gaur egun behi bakoitzeko esne litro dexente gehiago ekoizten dela orain hamar urte baino, edo letxuga gehiago ateratzen dela hektareako; baina, diodan bezala, ez dit horrek ardura. Arduragarriago iruditzen zaizkit beste gauza batzuk nik nahi bezalako nekazaritzak eduki beharko lituzkeena: Enplegu sortzaile eta mantentzaile den nekazaritza nahi nuke, eta horregatik aukeratu dut aldagai hura. Ingurumenagaz bat egiten duen nekazaritza nahi nuke, eta horregatik aukeratu dut lurraren faktorea aztergai. Gure herriak jateko dituen beharrizanen zati inportante bat beteko lukeen nekazaritza nahi nuke, eta horregatik aukeratu dut azken produkzioaren kopuruen aldagaia. Nekazariei pre-

zio duinak eta bizimaila duina ematen dizkien nekazaritza nahi nuke, eta horregatik aztertu dut prezioen eboluzioa.

Eta zer interes dut Nekazaritza Errenta dela-eta? Hori ere nahita hautatua dago, baina beste arrazoi batengatik. Azken finean, arrakasta ekonomikoaren (edo ekonomizistaren) terminoetan baloratzen ohi dute beste batzuk (tartean nekazaritza politikaren arduradunek ere) sektore bat ondo edo txarto doan. Erakutsi gura izan dut termino horietan ere (nireak ez direnak) ez dagoela, nire ustez, optimismo handitarako lekurik, ezta gutxiago ere. Eta hala ere -ezin ulertu zergatik- behin eta berriro irakurri edo entzun behar izaten ditugu komunikabideetan optimismoz beteriko mezu triunfalistak gure sektorearen martxa dela eta. "Nekazaritza ondo doa", antza.

Jabier Erize

2003ko apirilaren 30ean.